



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

BALIABIDE FISIKOAK

Lan egingo dugunez Gasteizen edo Gasteizko inguruetan bulego bat ireki genezake, biltegiarekin batera. Bertan egingo genituzke administrazio-lanak, bezeroekin harremanak eta materialaren antolaketa.

Biltegian larrialdietako ate irekiera automatikorako beharrezkoak diren osagaiak gordeko genituzke (sistema elektronikoak, kontrol-kutxak eta instalaziorako materiala), instalazioak modu azkar eta eraginkorrean egiteko.

Garraioari dagokionez, guk geuk arduratuko ginateke materiala bezeroen etxebizitzetara edo instalazio-gunetara eramateaz. Horretarako, ibilgailu propio bat edo alokatutako furgoneta bat erabiliko genuke, beharren arabera.

Azkenik, instalazioa egiteko beharrezkoak diren tresnak izango genituzke: tresna elektrikoak, segurtasun-ekipamendua eta probak egiteko materiala, sistema behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko.

BALIABIDE INTELEKTUALAK

Guk izandako ideia laguntza behar duten pertsonak laguntzeko eta bizitzak salbatzeko egin dugu. Horregatik, proiektuaren baliabide intelektual nagusia gure sormena eta irtenbideak pentsatzeko gaitasuna da, egoera larrialdietan pertsonak seguru ateratzeko sistema bat diseinatzeko.

Gainera, gure ezagutza teknikoa, arazoak konpontzeko abilezia eta aplikazioaren eta ate automatikoaren funtzionamenduaren ideia propioak dira baliabide intelektual garrantzitsuak. Baliabide hauei esker, proiektua pertsonen segurtasunaren zerbitzura jar daiteke, eta etorkizunean hobekuntza eta eguneratzeak egiteko aukera ematen du.

GIZA-BALIABIDEAK

Giza baliabideei dagokionez, enpresa honen langileak lagunak gara gure artean eta ondorioz oso komunikazio ona eta harreman estua dugu. Talde-lanerako ohitura dugu, eta erabakiak modu azkar eta koordinatuak hartzen ditugu. Hori guztia gure proiektuaren funtzionamendua bermatzen du.

Horregatik, gure bezeroekin lortu nahi dugun harremana ere hurbila izatea nahi dugu, beraiek konfidantza izateko gudan. Horrela, bezeroen eta langileen arteko sare bat sortuko genuke.



FINANTZA BALIABIDEAK

Finantza-baliabideei dagokionez, proiektua aurrera eramateko aurrezki propioak ditugu. Hala ere, hasierako inbertsioa handiagoa denez, banku-mailegua eskatu beharko dugu.

Mailegu hori proiektua abian jartzeko erabiliko da, eta diru-sarreraren bidez pixkanaka itzultzea aurreikusten da. Finantzaketa misto honi esker, proiektuaren bideragarritasuna eta egonkortasuna bermatu nahi ditugu epe ertain eta luzera.